





Erdaldundu egin al da sagardotegietako giroa?



Joxe Ramon Rezola
Rezola sagardotegikoa


• «Orain ere jende euskalduna etortzen da gehien. Askotan gainera kalean batere egiten ez duten horiek, trago batzuk hartuta, hemen egiten dutela uste dut. Gaur bertan Zornotzako barnetegi batetik 50 bat lagun etorri zaizkit eta haiek ere euskaraz saiatzen ziren. Giro euskalduna da gehienbat».

• «Bai, erdaldundu egin da. Gizartearen ispilua da sagardotegia, eta ondorioz denetarikoa jendea etortzen da hona. Gizarte bertako euskalduntasun edo erdalduntasuna islatzen da hemen. Euskaraz egiten duten gazteak badira noski, baina erdara ere asko entzuten da sagardotegietan».



Joxe Mari Irizar
Barkaiztegi sagardotegikoa

• «Ez nuke esango. Erdaldunik beti izan da sagardotegian. Horretan ez da giroa aldatu. Aldaketa, 500 pezetarengatik lehertzeraino edatera datozenek ekarri dute. Tristea litzateke oraingo gorakada erromeri bezala hartuko balitz, eta ez kultura eta herriko gauza bat bezala»



Joxe Angel Goñi
Gurutzeta sagardotegikoa

Sagardo ona ezagutzeko aholkuak:

- Egun, kolorez sagardo hori-berdexka estimatzen da gehien. Ez dadila oso iluna edo gorria izan. Gardena.
- Basoan zerbitutakoan txinparta mihia behar du. Aparrak ez du luze iraun behar, ez dadila garagardoaren antzeko apar lodia gera.
- Zenbat eta fruta usain gehiago izan orduan eta hobe, sagar usaina ondo egindako irakitearen seinale da.
- Mihia ahosapaian jarrita, sagardoaren garratzasun eta lehortasuna frogatzen da, azukre gehienak joanak zaizkion jakiteko.
- Eztarritik erraz eta leun igaro behar du.

MENDIZABAL



Mendizabal aita duela 26 urte Goiatz aldetik etorri zen Astigarragako Oiarbide-txiki baserrira eta bertan ireki zuen sagardotegia. Apirilaren bukaera arte egiten dute txotx garaia, baina ur-

te osoan dago irekita. 250 pertsona sartzen dira. Exerita egotekoa da. Sagardo garaian haragia bertan eskaintzen dute nahiz eta eramateko aukera izan.

Tfnua: 55.57.47

BARKAIZTEGI



7 belaunaldiz segidan baserrian sagardoa saldu egin da. Txotx garaia apirilaren bukaera arte izaten da. Bestela, jatetxe moduan, urte osoan dago irekita. 130 lagunentzako lekua dago.

Exerita egotekoa da. Barkaiztegi bidean. Martutenean dago.

Tfnua: 45.13.04